

GIZARTEA. Atzo hasi zen Bilbon 'Hiriak, Arkitektura eta Gizartea XXI. mendean' mintegia

«Globalizazioaren kontrakoak ezin ditugu baztertu; badugu zer ikasia»

Anthony Giddens
soziologoak
globalizazioaren alor
ugari jorratu zituen

Juanma Sarasola | BILBO

Hiriak, Arkitektura eta Gizartea XXI. mendean lelopean zazpi ataletan banatutako mintegia hasi zen atzo, Bilbon. Anthony Giddens soziologoak eman zituen hasiera eta sarrera hitzaldiak, Bizkaiko Diputazioan lehenik, eta Guggenheim Museoan jarraian. Hirien eta hiritarren izakera aldaketaz aritu zen, eta globalizazioaren historia gogoratu zuen ere, berau merkatu hedapena soilik ez dela, eta «aldaketa garrantzitsuen sortzailer» gisa azalduz.

Soziologo britainiarraren iduriko, «tokian tokikoa ulertzeko, hirietan arlo globalean gertatzen ari diren aldaketa soziopolitikoak kontuan hartu behar ditugu». Halaber, «mintegi hauekin eragin intelektuala eta ideien arteko trukea bultzatu nahi ditugu; Bilbotik ikasi eta aldi berean Bilbok geure esperientziatik ikastea nahi dugu», esan zuen.

Azken hilabeteotan informazioaren teknologiaren arloko enpresa handiek izaniko atzerakadari garrantzia kendu eta hauxe azpimarratu zuen soziologoak: «Pauso bat atzera eta hiru aurrera dira, teknologiak eraldaketaren atarian baitira».

Hirien eta hiritarren aldaketa

Era berean, hiritarren izakeran aldaketa handiak iragarri zituen: «Askoz ere gizabanako aktiboagoak eta beren gobernuekiko eszeptikoagoak direnak sortuko dira».

Globalizazioa, informazioen teknologia eta gizartearen bilakaera datozen urteotako aldaketan oinarria izango dira, Giddensen ustetan. «Aldaketa horietako asko hirietan gertatuko dira», gehitu zuen.

«Diseinu urbanoa ezinbestekoa da; edertasuna behar dugu, baina behar sozialei erantzungo diena», azaldu zuen. Bilbon duela 25 urte izan zen Giddens lehen aldikotz —«10-11 orduz», onartu zuen—, eta oraingoan «oso aldatua» topatu du hiria. Guggenheim Museoak izandako mundu mailako eragina nabarmendu zuen. Halaber, Bilbo

Anthony Giddens soziologoak *Hiriak, Arkitektura eta Gizartea XXI. mendean* mintegia hasi zuen.



GEROKO HIRITARRAK

GLOBALIZAZIOA

«Gizabanako aktiboagoak eta beren gobernuekiko eszeptikoagoak direnak sortuko dira hirietan»

Europako ekonomian «leheneratze erreferentzia» bilakatu dela aipatu zuen.

Globalizazioaren eztabaida

Giddensek globalizazioaz jardun zuen jarraian, *Globalizazio* hitzaren historia eta bilakaera aztertze duela hamabi urtera atzera jo behar dela esanez. «Orduan inork gutxi erabiltzen zuen berba hori», azaldu zuen, «eta, ondorioz, ez zegoen protestarik ia esistitzen ez zen hitz baten eta horren esanguraren kontra». Urteotan, baina, hitza «asko eta oso bizkor» hedatu dela gaineratu zuen. Ildo horretatik, halako aldaketa bati «atzean zerbait esanguratsua» dagoela iritziz, eta eztabaida egongo dela «ziur» egon gaitzkeela iragarri zuen.

Bestalde, globalizazioaz bi eztabaida nagusi egin direla adierazi zuen atzo Giddensek: batetik, «goiztiarra» deitu zuena, eta, bestetik, «oraingoa».

Eztabaida goiztiarra duela bospasei urte arte izan zen: «Akademiko eta intelektualei mugatua zegoen, eta, bestalde,

«Globalizazioa ez da soilik merkatu globala; ez da soilik ekonomia, zerbait sakonagoa da»

globalizazio hitzak ordaineko errealtatea zuenetz galdegiten zuten kritikoek eta eszeptikoek. Duela 100 urte munduan zehar, merkaturak, emigrazioa eta abar bazeuden, eta eszeptikoek ordutik hona ea zer zen berria galdetzen zuten; globalizazioa eskuinak ongizate estatua deusezteko kontzeptua zela zioten kritiko batzuek». Egun, ostera, eztabaida hori «bukatutzat» jo zuen soziologoak.

Oraingo eztabaidari dagokionez, «globalizazioaren ondorioak jorratzen ditu», esan zuen hizlariak. «Errealtatea onartu ostean aldaketak atzeraezinak direla ere onartu behar dugu. Bigarren eztabaida hau erreala da, eta jendea kalera aterarazten du; jendearen sentimenduekin lotua dago. Nahiko genukeen eta sortzen ari den gizartearekin zerikusia du».

«Globalizazioaren kontrako manifestariak ezin ditugu irrazionaltzat jo eta baztertu; bada zer ikasia haiengandik».

Azkenik, globalizazioaren aldekoek zein kontrakoek duten «oinarrizko errakuntza bat» sei-

SOSLAIA
ANTHONY GIDDENS
(SOZIOLOGOA)

Laborismoaren
teorikoetako bat

Giddens doktorea LSE Londresko Ekonomia eta Zientzia Politikoko Eskolako zuzendaria eta itzal handiko soziologoa da, eta gaur egungo laborismo britainiarraren teorikotzat jo dute. *Hirugarren bidea* delakoaren sortzaileetako bat da, elkartasun soziala ekonomia dinamiko batekin uztartzea proposatzen duena. Giddensek idatzitako lanen artean honako hauek ditugu: *The Third Way: The renewal of social democracy* (1998), *The Third way and its Critics* (2000) eta *On the Edge: living with global capitalism* (2000).

nalatu zuen: «Globalizazioa instituzio handiekin eta merkatu globalarekin identifikatzea akats bat da; ez da soilik hori, ez da soilik ekonomia, zerbait sakonagoa da ere. Bestalde, geuk ere aktiboki parte hartzen dugun prozesua da, eta gure bizitzako alor guzietan du eragina».

Berebat, globalizazioan hedabideen rol «garrantzitsua» nabarmendu zuen Giddens doktoreak.

IKERKUNTZA

Enbrioien zelula pluripotenzialez baliatzen diren ikerketak eten ditu Bushek

Agentziak | WASHINGTON

EEBBetako presidente George W. Bushen enbrioien zelula amak erabiltzen dituzten ikerketak gelditzea erabaki du berriki, *Washington Post* egunkariak kaleratu duenez. Horretarako, diru laguntza publikoak bertan behera utzi ditu Bushen.

Ikerkuntzak prestatzen hilabete aritu diren zientzialarientzako ezbehar handia da hartutako deliberazioa. Diru laguntza hori heldu den maiatzaren 2an egitekoa den bilera batean banatu behar zuten, Giza Zelula Ama Pluripotenzialak Aztertze Taldearen bileran, hain zuzen ere. Ikerketak *in vitro* ernaketetan sobratutako enbrioiekin egin behar zizuten.

Azken hilabeteotan, zelula ama lortzeko beste iturri batzuk aurkitu dira, hala nola, bizkarrezurreko muina, liposukzioetatik ateratako gantza, eta plazentatik. Haatik, zientzialariek izoztutako umekietatik lortutako zelula ama pluripotenzialekin ikerketzen segitu nahiko lukete.

Zapore gozoak atzematen dituen genea zein den argitu dute zientzialariek

Agentziak | NEW YORK

Gozoa, gazia, garratza... Mingainak bereizi ohi dituen zaporeak dira; horretan esku hartzen duten hainbat gene identifikatu zeuden ja, eta egunotan zapore gozoa atzematen duen genea aurkitu dutela esan dute New York eta Harvardeko Unibertsitateko ikerketa talde bik.

Aditzera eman duteenez, aurkikuntza garrantzitsua da: zapore gozo berriak egiten lagunduko du. Halaber, pertsona batzuen gozozaletasun itsuaren atzean zer dagoen argituko du.

Ikerkuntza saguekin egin dute, baina haiengan ikusi ezaugarriak pertsonengan ere aski antzekoak direla jakinarazi dute.